

EUSKARA 5 - 1. gaia

Ikasi nahi dut

1. saioa

Helburuak

Tokien (ikasgelen) deskribatzen ikastea, ahoz eta idatziz.

Ibilbidea:

Ikastalde osoa 	Gaian sar zaitez Irakasleak laster konparatuko ditu XX. mende hastapeneko ikasgelak eta XXI. mende hastapeneko ikasgelak, eta jarduera aurkeztuko. Bi orrialdeak handiz inprimatuko dira eta afixatuko. Argazkiak ttipiz inprimatuko dira ere, eta moztuko. Irakasleak: «<i>Elkarrekin deskribapen jarduera bat egingen dugu. Ondotik taldeka segituko duzue. Eskuliburuaren argazkiak handiz inprimatu ditut (edo arbelean proiektatzen ahal dira). Kutxan ber argazkiak ditut. Ikasle batek, argazki bat hartuko du, eta besteei erakutsi gabe deskribatuko. Isilik entzunen duzue. Bukatua izanen duelarik, beste ikasle bati galdeginen diot deskribatu duen argazkia zein den.</i>» Bizpahiru adibide egingen dira talde osoan. Ikasleek deskribatu arau, irakasleak ikasgelen deskribatzeko hiztegia arbelean idatziko du eta aberastuko. Ondotik, ikasleak, hiztegiaren zerrendan oinarritzen ahalko dira. Zerrendatu hiztegia fitxa batean bil liteke.
Taldeka	Talde bakoitzak eskuliburua ukanen du, eta 16 argazki mozturik. Ikasleek ikasgelen deskribatzeko hiztegi fitxa baliatuko dute. * Irakaslea taldeetara hurbilduko da, ikasleek hiztegi egokia baliatzen dutela segurtatzeko.
Ikastalde osoa	Irakasleak: «<i>Ahoz trebatu eta, idatziz deskribatuko duzue. Bakoitzari ikasgela baten zenbakia banatuko diot. Bakoitzak araberako ikasgela deskribatuko du ahal bezain zehazki, ahoz erabili hiztegia baliatuz. Zuen idatz lanak nahasiko ditugu. Aldizka, ikasle batek deskribapen bat zozketatuko du eta irakurriko. Deskribatua den ikasgelaren zenbakia arbeltxoan idatziko duzue.</i>»
Bakarka	Argazki baten zenbakia ukanen dute eta idatziz deskribatuko. * Irakasleak ikasle batzuekin lan egin lezake. Ikasleek ahoz irudia deskriba lezakete, hiztegi fitxa erabiliz eta irakasleari diktatu. Nahiz eta taldean egin, ikasle bakoitzak deskribapen bat prestatuko du ikastaldeari irakurtzeko, irakaslearen eta lagunen laguntzaz.
Ikastalde osoa 	Ikasleek aldizka irakurriko dute eta besteek araberako numeroa idatziko arbeltxoan. Irakurri deskribapena ontzat emateko, argazkiak handiz afixatuko dira edo arbelean proiektatuak.

Ikastalde osoa 	XX. mende hastapeneko eskoletako egoeraren barnatzeko, beste argazkiak deskribatuko dituzue: 1) Untzue Nafarroa 1911ko edo 1916ko martxoaren 10a. Ikasleen talde argazkia irakaslearekin, Untzueko eskolako ikasgela batean. Lehen planoan, berogailu bat ageri da eta mahai hutsak; eskuinaldean eta gibelean, ikasleak zutik dira liburu irekiak eskuetan. Gibelean, irakaslearen bulegoan globo bat ageri da eta horman ordulari bat, gurutze bat eta afixa didaktikoak zintzilik. Nafarroako Fototeka-n beste argaki batzuk aurkituko dituzue. 2) Britainako eskola https://histoire-image.org/fr/etudes/ecole-republicaine-bretagne Nesken eskulan eskola (Finisteroa) HALL Richard (1860 – 1942) - © Rennes-ko Arte ederren museoa Historia pixka bat Denendako irakaskuntza baserrialdeko Frantzia III. Errepublikaren garaian XIX. mendean, eskola anitz eskas ziren Britainian, eta jendearen alfabetatzeko beranta handia bazen. 1850ko Falloux legearen ondorioz, 800 biztanlez goitiko herriak behartuak ziren neskendako eskola baten irekitzea. Horren ondorioz eskola giristinoak garatu ziren. III. Errepublikaren hastapenean, lehen mailako eskola baitezpadakoa, laikoa eta doakoa bilakatu zen 1881-1882 urteetako Ferry legeen ondorioz. Baina egoitza egokirik ez baitzen eta baliabide guti, batzuetan leku inprobisatuetan antolatu behar ziren eskolak, belartegi batean, adibidez. 1882tik landa, eskualdeko hizkuntzak eskolan erabiltzea debekatua zen, frantsesa baitzen hizkuntza ofizial bakarra. Pouldu-ko (Finistère) eskulan eskola horretan, britainiar neskek trikotatzen ikasten zuten... Alabaina, ez zitzairen herriar izaten irakasten, garai hartan emazteek ez baitzuten bozkatzeko eskubiderik. Halere, errepublika garaian nesken eta mutikoen irakaspenak neurri batean berdindu ziren. Eskola errepublikanoaren oinarri azkarra zen irakaslea. Haren egitekoa zen morala laikoaren irakastea, erlijioen irakaspenaren ordezkatzeko. Eskola errepublikanoaren garapenarekin betan frantsesa hizkuntza bakar gisa inposatzeko nahikeria hedatu zen. Gibeledako planoan neska bat ageri da zigorturik, bretoieraz mintzatu ote zen? Gogoeta luzatzeko Nafarroako fototekako Euskal Herriko ikasgelak deskribatzen ahalko dituzue (zenbat ikasle, mistotasuna, jantziak ...)
Ikastalde osoa .	Saioaren bilana: “Zer ikasi duzue?” Ikasleek beren hitzetan ikasi dutena formulatzen dute. Irakasleak saioaren helburuekin koherentzia segurtatzen du.

Lotura batzuk Hautatu behar dira edo hobe atzematen badituzu euskal herrikoak ezarri

<http://www.ecole-musee.chateau-chalon.fr/visite-virtuelle/quelques-photos-1-18.htm>

https://www.onlyinyourstate.com/alabama/unique-village-al/?utm_source=pinterest&utm_medium=social



https://actu.fr/occitanie/cardaillac_46057/patrimoine-four-pain-ecole-dantan-dans-lot-vous-pouvez-visiter-musee-eclate_31849715.html

<http://ptibonheurdariel.canalblog.com/archives/2008/09/04/10462408.html>

<http://chris59132.canalblog.com/archives/2012/10/19/25368225.html>



<https://pxhere.com/fr/photo/1384915>

https://fr.m.wikipedia.org/wiki/Fichier:Salle_de_classe_ancienne_%C3%A9cole_communale_-_Montrol-S_%C3%A9nard.JPG

https://www.google.com/search?q=%C3%A9cole+photos+int%C3%A9rieur+ancienne&client=ubuntu&hs=dAX&channel=fs&source=lnms&tbm=isch&sa=X&ved=2ahUKEwiw_pv3q

p7xAhVJzoUKHSm4BDAQ_AUoAXoECAEQAw&biw=1440&bih=647#imgrc=z0flzljZLeteuM&imgdii=xl7il9hyn5FiKM

<https://randonnees.eurelien.fr/circuit/5e78ddecdb2a87.34373386/5ef4991dd1788/partenaire/1525833>

<http://ecolemusee.free.fr/index.php/galerie-photos/>

<https://www.tournivelle.fr/la-classe-1900/classe-1900-tournivelle/>

https://www.tripadvisor.fr/LocationPhotoDirectLink-g6468655-d8624521-i211868090-Chateau_de_Saint_Izaire-Saint_Izaire_Aveyron_Occitanie.html

2. saioa

Helburuak

Dokumentuen aztertzea
Euskararen egoari buruz gogoetatzea

Aitzineko saioan ikasiaz oroitzea ISILTASUNEAN	
Ikastalde osoa	Ikastalde osoarekin 8.-11. orrialdeak axaletik irakurriko dituzue, dokumentuetan zer gai tratatua den aipatzeko. Kantua ikas dezakezue eta gogoeta has zaitezke. <i>Xoxoak galdu du mokoa</i> <i>Mokoa, xoxoa, gaixoa.</i> <i>Nola kanta, nola txirula, nola kanta xoxoak.</i> <i>Xoxoak galdu du begia.</i> <i>Begia, mokoa, gaixoa.</i> <i>Nola kanta, nola txirula, nola kanta xoxoak.</i> <i>Xoxoak galdu du sudurra.</i> <i>Sudurra, begia, mokoa, gaixoa.</i> <i>Nola kanta, nola txirula, nola kanta xoxoak.</i> <i>Xoxoak galdu du burua.</i> <i>Burua, sudurra, begia, mokoa, gaixoa.</i> <i>Nola kanta, nola txirula, nola kanta xoxoak.</i> <i>Manifestaldiaren kariatara sortu kantua:</i> https://www.youtube.com/watch?v=L8Sn5FbkITY
Bakarka edo binaka	<i>2. fitxa: "Hizkuntzari buruzko dokumentuak"</i>
Ikastalde osoa	Zuzenketa eginez dokumentuak aztertuko dituzue.
Ikastalde osoa .	Saioaren bilana: "Zer ikasi duzue?" Ikasleek beren hitzetan ikasi dutena formulatzen dute. Irakasleak saioaren helburuekin koherentzia segurtatzen du.

3. saioa

Helburuak

Prentsaren irakurtzea eta ulertzea
Euskararen egoari buruz gogoetatzea

Aitzineko saioan ikasiaz oroitzea ISILTASUNEAN	
Ikastalde osoa	Irakasleak egunkari batzuk ekar litzake. Ikasleek konparatzen ahalko dituzte eta egunkarien ezaugarriak bildu: Lehen orrialdeari "azala" erraten zaio. Gehienetan egunkaria erosi aitzin ikusten den orrialde bakarra da. Egunkariaren edukiaz argibideak ematen ditu. Irakurlearen begia erakarri behar du (harpideduna, noizbehinkako irakurlea, karrikan iragaten den oinezkoa...). Azalaren xedea egunkariaren salmentak eragitea da. Argibideak antolatuak dira egunkariaren irakurtzeko gogoaren emateko gisan: laburra eta erakargarria izan behar da. Argibideak (egunkariaren barnean edo azalean) sailka antolatuak dira (adibidez: nazioarteko berriak, Euskal Herria, kirola, kultura, etab.)
Bakarka	<i>Berria</i> egunkariaren <i>Mantangorri</i> sailaren artikuluak irakurriko dituzte ikasleek.

edo binaka	3. fitxa: "Prentsaren artikulua"
Ikastalde osoa 	Zuzenketa
Ikastalde osoa .	Saioaren bilana: "Zer ikasi duzue?" Ikasleek beren hitzetan ikasi dutena formulatzen dute. Irakasleak saioaren helburuekin koherentzia segurtatzen du.

4. saioa

Helburuak

Bi ikasleren lekukotasunen ulertzea

Aitzineko saioan ikasiaz oroitzea ISILTASUNEAN	
	Jean-Louis Davant-en testua irakur dezakete eta galdetegia osa. <i>Ikas-en oharra: Gazteen lekukotasun batzuk bildu nahi ditugu gaurko egoera adierazteko. Bildu eta, webgunean gehituko ditugu.</i>
Ikastalde osoa	Saioaren bilana: "Zer ikasi duzue?" Ikasleek beren hitzetan ikasi dutena formulatzen dute. Irakasleak saioaren helburuekin koherentzia segurtatzen du.

5. saioa

Helburuak

Prentsa erreportaje baten ulertzea

Entziklopedia birtualen antolamenduaren eta funtzionamenduaren ulertzea

Aitzineko saioan ikasiaz oroitzea ISILTASUNEAN	
Ikastalde osoa	Ikasleek eskuliburua 10. eta 11. orrialdeetan irekiko dute. Ir: "Prentsan mota bat baino gehiagoko idazkiak badira. 14. & 15. orrialdeetan, aldizkariaren zer sail irakurtzen duzue? Zeri buruz ote da?" → Erreportajea da, <i>Txikipedia</i> gaztetxoei egokitutako entziklopediari buruz. Irakasleak ikasleei galdeginen die zer dakiten entziklopedia horri buruz eta memento bat utziko die gogoetatzeko. Irakasleak galderak idatz ditzake arbelean: Entziklopediaren antolamendua: nola osatua ote da entziklopedia birtual bat? Funtzionamendua eta sortzaileen helburuak: zertarako erabiltzen ahal ote da?
Bakarka	Ikasleek zirriborroan idatziko dute entziklopedia birtualari buruz dakitena.
Ikastalde	Irakasleak ikasleen irudikapenak afixa batean idatziko ditu. Dudak baldin badituzte ere bai...

osoa	TXIKIPEDIA ENTZIKLOPEDIA BIRTUALA	
	Entziklopediaren antolamendua Nola antolatua da? Zer atzeman dezakegu entziklopedia batean?	<i>Txikipedia</i> entziklopediaren funtzionamendua eta helburua
	- - -	
	Ondotik irakasleak ikasleei proposatuko die erreportajea irakurtzea, argibideen baieztatzeko edota osatzeko. Ir: “Erreportajea fotokopiatuak banatuko dizuet. Txikipedia entziklopediari buruz dakizuenak, zuen dudak edo galderak afixa honetan idatziko ditugu. Testuan informazioak gainmarkatuko dituzte, duden argitzeko edo argibideen osatzeko. Lehenik isiltasunean irakurriko duzue eta informazioak xerkatuko. Ondotik, binaka gainmarkatuko duzuenak konparatzen ahalko duzue. Azkenik, afixan idatzi dudana balidatuko dugu edo zuzenduko edo osatuko.”	
Bakarka	Ikasleek isiltasunean irakurriko dute eta argibideak gainmarkatuko. * Irakasleak ikasle batzuekin lan egin lezake.	
Binaka	Ikasleek beren lanak konparatuko dituzte, entziklopediaren antolamenduaren eta funtzioaren ezagutzeko.	
Ikastalde osoa	Ikasleek saioaren hastapenean idatzi irudikapenak baieztatuko, zuzenduko edo osatuko dituzte. Irakasleak orrialdeak arbelean proiektatuko ditu eta ikasleek erakutsiko dute argibideak testuko zein partetan aurkitu dituzten.	
	Entziklopediaren antolamendua Nola antolatua da? Zer aurki daiteke entziklopedia batean?	<i>Txikipedia</i> entziklopediaren funtzionamendua eta helburua
	- Artikulu anitz badira (2021ean 3 000 artikulu baino gehiago) - Sail anitzetako jakintzak (natura, kultura, zientzia, jendartea, kirola...) - Pertsonaien ezaugarriak eta biografiak - Kontzeptu orokorren deskribapen eta azalpenak - Gai orokorreni buruzko bitxikeriak	- Jakintza sail guztietako edukiak irakurtzen ahal dira. - Edonork sor dezake edukia, argibideen partekatzeko. - Lan boluntarioaren bidez osatzen da. - Edukiak hutsetik sortuz edo jadaneko hasiak direnak osatuz eta zuzenduz. - 8-13 urteko gazteek argitaratzen ikastea eta ekarpenen egiten jakitea.
Ikastalde osoa .	Saioaren bilana: “Zer ikasi duzue?” Ikasleek beren hitzetan ikasi dutena formulatzen dute. Irakasleak saioaren helburuekin koherentzia segurtatzen du.	

6. saioa

Helburuak

Artikulu entziklopedikoen ezaugarrien ezaugarria Testu dokumentuaren irakurtzea eta ulertzea

Aitzineko saioan ikasiaz oroitzea ISILTASUNEAN					
Ikastalde osoa	Isiltasunean, ikasleek aitzineko saioan <i>Txikipedia</i> entziklopediari buruz idatzi afixa irakurriko dute. <i>Txikipedia</i> entziklopediaren artikulu batzuk aurkez ditzake irakasleak. Lehen begi kolpetik azalpen testuak direla ageri dela azpimarratuko da. Bai formaren aldetik, eta bai edukiaren aldetik (azalpen objektiboa da). Ondotik, irakasleak idazlana aurkeztuko du. Ir: “Zuek ere Txikipedia entziklopediako artikulu bat idatziko duzue. Gai bat hautatuko duzue eta taldean artikulua idatziko.”				
Taldeka	Ir: “Idazlana hasi aitzin Txikipediako artikulu batzuk fotokopiatu ditut. Konparatuko dituzue eta ezaugarriak zerrendatuko.” Talde guziek <i>Txikipediako</i> 3 artikulu berak ukanen dituzte. Arbelean idatz dezakezue: “Artikulu horiek zer dute berdin?” 1) Nola antolatuak dira? (zer forma dute?)? 2) Edukiak nola idatziak dira? (Erabili hizkuntza azter ezazue)				
Ikastalde osoa	Hiru testu afixatuko dira edo arbelean proiektatuko. Ikasleek 3 testuetan diren elementu amankomunak gainmarkatuko dituzte, bai artikulu entziklopedikoen formaren adierazteko, baita edukiarena ere. <table border="1"> <thead> <tr> <th>Forma</th><th>Edukia (azalpen objektiboa da)</th></tr> </thead> <tbody> <tr> <td> Diskurtsoaren egitura Azalpen egitura kontuan hartu du: - Izenburua - Sarrera - Azpi izenburuak eta azpi sailak - Deskribapena, azalpena, kontaketa - Argazkiak edo eskemak - Orrialde antolaketa </td><td> Diskurtsoaren kohesioa - 3. pertsonan idatzia da (ekoizlerik eta hartzailerik ez da agertzen). - Baliabide anaforikoak dira (sinonimoak, izenordainak...). - Testu antolatzaileak (lehenik, bigarrenik, alde batetik, hasteko, gero, azkenik). - Espazioan kokatzeko antolatzaileak (eskuinean, gorago...). - Kausa eta ondorio adierazleak. - Azalpenak eta adibideak. Hizkuntza eta hiztegia Indikatibozko orainaldia erabiltzen du, aspektu burutua eta burutu gabea. - Adjektibo, adberbio eta aditz zehatzak dira. </td></tr> </tbody> </table>	Forma	Edukia (azalpen objektiboa da)	Diskurtsoaren egitura Azalpen egitura kontuan hartu du: - Izenburua - Sarrera - Azpi izenburuak eta azpi sailak - Deskribapena, azalpena, kontaketa - Argazkiak edo eskemak - Orrialde antolaketa	Diskurtsoaren kohesioa - 3. pertsonan idatzia da (ekoizlerik eta hartzailerik ez da agertzen). - Baliabide anaforikoak dira (sinonimoak, izenordainak...). - Testu antolatzaileak (lehenik, bigarrenik, alde batetik, hasteko, gero, azkenik). - Espazioan kokatzeko antolatzaileak (eskuinean, gorago...). - Kausa eta ondorio adierazleak. - Azalpenak eta adibideak. Hizkuntza eta hiztegia Indikatibozko orainaldia erabiltzen du, aspektu burutua eta burutu gabea. - Adjektibo, adberbio eta aditz zehatzak dira.
Forma	Edukia (azalpen objektiboa da)				
Diskurtsoaren egitura Azalpen egitura kontuan hartu du: - Izenburua - Sarrera - Azpi izenburuak eta azpi sailak - Deskribapena, azalpena, kontaketa - Argazkiak edo eskemak - Orrialde antolaketa	Diskurtsoaren kohesioa - 3. pertsonan idatzia da (ekoizlerik eta hartzailerik ez da agertzen). - Baliabide anaforikoak dira (sinonimoak, izenordainak...). - Testu antolatzaileak (lehenik, bigarrenik, alde batetik, hasteko, gero, azkenik). - Espazioan kokatzeko antolatzaileak (eskuinean, gorago...). - Kausa eta ondorio adierazleak. - Azalpenak eta adibideak. Hizkuntza eta hiztegia Indikatibozko orainaldia erabiltzen du, aspektu burutua eta burutu gabea. - Adjektibo, adberbio eta aditz zehatzak dira.				
Bakarka edo taldeka	Irakasleak gai batzuk proposatzen ahalko dizkie ikasleei eta arabera dokumentuak irakurrarazi. Bestela ikasleek taldean zer gai landu nahi duten erabakiko dute eta ondoko saioan testu dokumentuak irakurriko.				
Ikastalde	Saioaren bilana: “Zer ikasi duzue?” Ikasleek beren hitzetan ikasi dutena formulatzen dute.				

osoa .	Irakasleak saioaren helburuekin koherentzia segurtatzen du.
--------	---

6. saioa

Helburuak

Artikulu entziklopedikoaren ezaugarriak kontuan hartuz artikulu baten idaztea

Aitzineko saioan ikasiaz oroitzea ISILTASUNEAN	
Ikastalde osoa	Entziklopedia artikuluen ezaugarriak oroitaraziko dira. Artikulu baten idazteko estrategiak erabiltzen ahal direla azpimarratuko da irakurlearen "harrapatzeko": irudi kopurua, neurriak, kokapena, tipografia eta dokumentuaren antolaketa.
Taldeka	Taldeka entziklopedia artikulu bat idatziko dute ikasleek. Bukatu eta, paperean garbiki idatz dezakete edo <i>Txikipedia</i> entziklopedia elika.
Ikastalde osoa .	Saioaren bilana: "Zer ikasi duzue?" Ikasleek beren hitzetan ikasi dutena formulatzen dute. Irakasleak saioaren helburuekin koherentzia segurtatzen du.

7. saioa - Letrak elurretan - Lehen 3 kapituluak

Helburuak

Ipuin osoaren irakurtzea eta ulertzea: pertsonaien xedearen ulertzea eta pentsaketen asmatzea

Aitzineko saioan ikasiaz oroitzea ISILTASUNEAN	
Ikastalde osoa	Irakasleak ikasleei liburuaren kontrazalaren laburpena irakurriko die. Hasi aitzin, hiru galdera idatziko ditu arbelean: - Ipuin honetako pertsonaiak nor dira? - Pertsonaia baten arrangura zer ote da? - Zer antolatuko du arrangura horren gainditzeko? Beharrez, irakasleak bi aldiz irakurriko du. Ondotik hastapeneko egoera argituko duzue galderei erantzunez.
Bakarka	<u>1 & 2. kapituluak (5.orrialdetik, 24.orrialdera)</u> Ikasleek lehen bi kapituluak isiltasunean irakurriko dituzte eta aitonaren gaia adierazten duten hitzak edo hitz multzoak bilduko. <i>3. fitxa: "Lehen bi kapituluak"</i> * Duten heinaren arabera, ikasleek erranaldiak bilduko dituzte eta taulan idatziko, edo lehen bi kapituluak irakurri eta orrialdeen zenbakiak dituen taula emanen zaie.
Ikastalde osoa 	Taularen osaketa zuzenduko da.
Binaka	<u>3. kapitulua (25.orrialdetik, 34.orrialde arte)</u>

	4. fitxa: "3. kapituluaren irakurtzea"
Ikastalde osoa	
Ikastalde osoa	Saioaren bilana: "Zer ikasi duzue?" Ikasleek beren hitzetan ikasi dutena formulatzen dute. Irakasleak saioaren helburuekin koherentzia segurtatzen du.
Ikastalde osoa	35. or. - 42.or. irakurketa antzeztua

8. saioa – 4.kapitulua

Helburuak

Ipuin osoaren irakurtzea eta ulertzea
Testuaren seinaleetan oinarrituz, ipuinaren antzezten trebatzea

Aitzineko saioan ikasiaz oroitzea ISILTASUNEAN	
Binaka	Ikasleek lehen 3 kapituluak elkarri kontatuko dizkiete.
Bakarka	<u>4. kapitulua (35. orrialdetik 42. orrialdera)</u> Ikasleek isiltasunean irakurriko dute. <i>* Zalu ari diren ikasleek aitonaaren gaiaren seinaleak bil litzakete.</i> 37.or. "Eta zer moduz doaz Denisen irakurketak, Edurne? Hasi al zarete?" 38.or. "Bai, oso ongi, Denis, baina bihar goizean hasiko zarete irakurketarekin " <i>Eta Denisen dudak ... Balio ote du irakurtzen ikasten</i> 40.or. "Ez badut irakurtzen ikasten, bizitza osoan ezjakin hutsa izango naizela esango dit aitona"
Binaka	Ikasleek 4. kapitulua elkarri kontatuko diote.
Ikastalde osoa	Ikastalde osoak ipuina hastapenetik berriz kontatuko du. Ir: "Hirunaka ariko zarete, azken kapitulu horren antzezpena prestatuko duzue. Lehenik, irakurriko duzue eta rolak banatuko. Ondotik, lagunuen aitzinean emateko trebatuko zarete."
Hirunaka	Ikasleek aitonaaren, Denisen eta Edurneren rolak banatuko dituzte eta trebatuko dira. Irakaslea ikasleengana joanen da testua ahal bezain zehazki irakurtzen dutela eta testuan oinarrituz antzeztuko dutela segurtatzeko. Irakasleak ikasleei galdeginen die kapituluaren etxean irakurtzea.
Bakarrik	Testua landu eta, 3. galderari entzutera entseatuko dira: 3) "Denisek irakurtzen ikasteko gogorik ote du? Zer egoeratan pizten ote zaio Denisi irakurtzeko gogoa? Azkenean irakurtzen eta idazten nola ikasi du?" Ipuinaren zati honetan azpimarratzen ahalko dituzte Denis motibatua ez dela adierazten duten seinaleak (40. orrialdeko pasartea kopia dezakete).
Ikastalde osoa	Saioaren bilana: "Zer ikasi duzue?" Ikasleek beren hitzetan ikasi dutena formulatzen dute. Irakasleak saioaren helburuekin koherentzia segurtatzen du.

9. saioa – 5. & 6. kapituluak

Helburuak

Ipuin osoaren irakurtzea eta ulertzea
Ipuinaren antzeztea
Pertsonaien xedea aldatu dela ulertzea
Nork bere ikasketei buruz dituen xedeen zerrendatzea

Aitzineko saioan ikasiaz oroitzea ISILTASUNEAN	
Hirunaka	4.kapitulua antzeztea trebatuko dira.
Ikastalde osoa	Taldeka, ikasleek ipuinaren zatia antzeztuko dute. Irakasleak segurtatuko du interpretazioa testuaren arabera dela.
Bakarka	<u>5. kapitulua (43.orrialdetik, 56.orrialde arte)</u> 5. kapitulua irakurri 3.galderaren erantzuna osatuko dute. 3) “Denisek irakurtzen gogorik ba ote du? Zer egoeratan pizten zaio irakurtzeko gogoia Denisi? Azkenean nola ikasi du irakurtzen eta idazten?”
Binaka	3. galdera binaka zuzenduko dute eta 4.a egingen. 4) Denisek bere kaleko lehengusuari zer irakasten dio? * Testu fotokopiatua ematen ahalko zaie ikasle batzuei testuan gainmarka dezaten Denisek bere kusiari irakasten diona.
Bakarka	Ahoz adieraz ezazu Ikasle bakoitza idazten hasiko da zer irakurtzen ikasi nahi lukeen (paperezko liburuak, paperezkoak ez diren liburuetan).
Ikastalde osoa	Saioaren bilana: “Zer ikasi duzue?” Ikasleek beren hitzetan ikasi dutena formulatzen dute. Irakasleak saioaren helburuekin koherentzia segurtatzen du.

10. saioa

Helburuak

Ikasketari buruz eztabaidatzea
Ikasketari buruz irakurketa sarean osatzea

Aitzineko saioan ikasiaz oroitzea ISILTASUNEAN	
Taldeka	Eskuliburua gainbegiratu, garai honetan ikasketari buruz landu dituzten testuak gogoratuko dituzte ikasleek.
Bakarka	Aitzineko saioan, bakoitza idazten hasi zen zer irakurtzen ikasten nahi lukeen (paperezko liburuetan, ez paperezko liburuetan). Ikasleek idatzi dutena berrirakurriko dute eta osatuko.
Ikastalde osoa	Ondotik, ikasketari buruzko eztabaida antolatuko da. “Eskolan irakurtzen eta idazten ikasteak zer ekartzen dizu? Zer eskas zaizu? Zuen eskolan posible liteke beste zerbait irakurtzen ikasten hastea?”
Ikastalde osoa	Saioaren bilana: “Zer ikasi duzue?” Ikasleek beren hitzetan ikasi dutena formulatzen dute. Irakasleak saioaren helburuekin koherentzia segurtatzen du.

Ikasketari buruzko beste liburu zenbait irakur litzakete.